


**CAROLINAREN KASUA:
SEXU-LANA, ESTIGMA ETA EREDU JURIDIKO
EZBERDINEN ONDORIOAK**

Maite-Victoria Ruiz Inda
Donostia, 2024ko maiatzaren 13a

Zuzendariak:
Alazne Irigoien Domínguez
Juan Aldaz Arregi



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
1.1. Helburua.....	5
1.2. Metodologia.....	6
2. CAROLINAREN KONTAKIZUNA.....	8
2.1. Sarrera.....	8
2.2. Estigma eta bere islak.....	8
2.3. Emakume eredu hegemonikoa.....	9
2.4. Eredu legegileak.....	10
2.5. Sexu-lana lan prekarizatuen aldean.....	10
2.6. Amatasuna eta sexu-lana.....	11
2.7. Militantzia.....	12
2.8. Lan baldintzak.....	12
2.8.1. Sexu-lanaren modalitate batzuk.....	12
2.8.2. Enkargatuak.....	13
2.8.3. Erretiroa eta pandemia garaia.....	13
2.9. Etxebizitza eta alokairu hirugarrengotza.....	13
3. MARKO TEORIKO-KRITIKOA.....	14
3.1. Hizkera eta kontzeptu batzuen definizioa.....	14
3.1.1. Sexu/genero sistema eta patriarkatua.....	14
3.1.2. Interseksionalitatea.....	16
3.1.3. Prostituzioa vs. sexu-lana.....	17
3.2. Kasuan eragina duten botere sistemak.....	18
3.2.1. Generoa: <i>emakume (onaren)</i> kontzeptua.....	18
3.2.2. Klasea, arraza/jatorria eta tokiko/migrante statusa.....	20
3.2.3. Adina eta osasun psiko-fisikoa.....	21
4. ESTIGMAREN ARAZOA.....	22
4.1. Estigmaren ondorio subjektiboak.....	23
4.1.1. Norberaren ikuspegia.....	23

4.1.2. Harreman sozialak.....	23
4.1.3. Militantzia.....	24
4.2. Estigmaren ondorio estrukturalak.....	25
4.2.1. Osasun sistema.....	25
4.2.2. Sistema judiziala.....	25
4.3. Beste ondorio batzuk.....	26
4.3.1. Amatasuna.....	26
4.3.2. Etxebizitzara sarbidea.....	27
4.3.3. Lan baldintzak.....	28
 5. SEXU-LANA ARAUTZEKO EREDU LEGEGILEAK ETA HORIEN OINARRI IDEOLOGIKOAK.....	 30
5.1. Gaur egungo ereduak.....	31
5.1.1. Erregularismoa.....	31
5.1.2. Abolizionismo klasikoa.....	31
5.1.3. Debekuaren eredia.....	32
5.1.4. Erregulazioaren eredia edo <i>legalizazioa</i>	33
5.1.5. Iparraldeko neoabolizionismoa.....	35
5.1.6. Zelanda Berriko despenalizazioa.....	36
5.2. Espainiako egoera juridikoa.....	37
 6. LANAREN AUZIA.....	 42
6.1. Zergatik ez dugu <i>lanaz</i> hitz egiten?	42
6.1.1. Lan modalitate ezberdinak eta lan zuzenbidea.....	42
6.1.2. Lanaren eta eskubideen arteko lotura.....	44
6.2. Proposamena.....	46
 7. ONDORIOAK.....	 47
 8. ERREFERENTZIAK.....	 49
8.1. Dokumentu juridikoak.....	49
8.2. Bibliografia.....	50
 9. ERANSKINAK.....	 53

9.1. Carolinarekin izandako elkarrizketaren transkripzioa.....	53
9.2. WhatsApp bidez bidalitako audioen transkripzioa.....	71

1. SARRERA

1.1. Helburuak

Lan hau Carolinak eskainitako lekukotasunetik abiatzen da. Carolina sexu-langilea eta sexu-langileen eskubideen aldeko militantea da. Bere kasua Donostiako Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoan (JSKJ) aurkeztu zuen, eta hautatu egin nuen. Horren ondorioz elkarrizketa luze bat eskaini zidan, zeinetan sexu-lanarekin lotutako hainbat bizipen ezagutarazi zizkidan: horiei jarraituko diet lan hau garatu eta kasuari erantzun juridiko bat eman ahal izateko. Horra, beraz, lanaren helburu nagusia: Carolinaren kasuari helduz berak eta bere lankide askok zeharkatzen dituzten problematika horiek mahaigaineratu eta proposamen juridiko bat mahaigaineratzea. Esan gabe doa interpretazio juridiko horren funtsa dela aztertzea zein den eredu mesedegarriena emakumeen¹ eskubideak orokorrean, eta zehazki sexu-langileenak, hein handienez bermatzeko.

Azpihelburuei dagokienez, honako hauek izan ditut jomuga gisa. Bata, sexu-lanaren eztabaidak barnebiltzen dituen gai ugari eta konplexuak erakustea. Ezinezkoa izan zait neurri honetako lan batean guztietan sakontzea, eta horregatik zentratu naiz bereziki estigmaren paperean, arazo horiek guztiak zeharkatzen dituelakoan. Beste azpihelburua da sexu-lanaren estigmaren barne-makineria azaleratzea, bereziki genero-rolen paperari dagokionez. Hau da, emakumearen ideia hegemonikoak bai sexu-lanaren eztabaidan bai administrazioarekiko harremanean (bai osasun zerbitzuak bai sistema juridikoa) nola eragiten duen azaleratzea.

Bigarren atalean Carolinaren kontakizunaren laburpen bat egin dut, kasuaren eta jorratuko ditudan gaien aurkezpen gisa. Hirugarren ataleko marko teoriko-kritikoan, batetik, berak aipatutako garrantzizko zenbait kontzeptu eta gaian *gako* diren beste

¹Kasu batzuetan, sexu-langileei erreferentzia egitean, formula femeninoak erabili ditut nahiz eta prostituzioan jarduten duten %100 ez diren emakumeak: gizonezkoak eta emakume/gizon bereizketan sartzen ez diren pertsonak ere badaude. Hala ere, emakumeen presentziak sexu-lanaren gehiengo suposatzen du, eta hori islatu nahian, askotan emakumeei baino ez diet erreferentzia egingo.

hainbat azalduko ditut eta, bestetik, kasuan eragina duten zenbait botere-sistema landuko ditut. Laugarren atalean estigmaren arazoari helduko diot, presentzia oso handia baitu kasu honetan. Bostgarren atalean, egungo planteamenduak ulertze aldera, sexu-lana arautzeko eredu legegile ezberdinen azalpen labur bat gehitu dut, Carolinak horietako bakoitzari buruz kontatutakoak txertatuz. Atal honen amaieran Espainiako egoera juridikoari buruzko zati bat ere badago, seigarren ataleko proposamen juridikoak gure ordenamendua hartzen baitu abiapuntu gisa. Seigarren atalean lanaren auzia aztertzen da: lan zuzenbideari buruzko ideia batzuk azalduko ditut eta gero aipatutako proposamena mahaigaineratuko dut. Azkenik, lan guztian zehar aipatutako gaiak bateratu nahian, ateratako ondorioak jasoko ditut.

1.2. Metodologia

Esan bezala, lan hau JSKJ-ren testuinguruan kokatzen da eta horrek zenbait berezitasun dakartza metodologiari dagokionez: Klinikak errealitatea ikuspegi sozio-juridiko batetik aztertzeko apostua egiten du, eta ondorioz metodologia sozio-juridikoa izan da lan hau egiteko erabili dudana.

Metodologia sozio-juridikoa, iusnaturalismoa eta positibismo juridikoa ez bezala, soziologiatik abitzen den zuzenbidearen ikuspuntu bat da². Metodologia honek oinarrian duen ideia da zuzenbidea ezin dela errealitatetik, gizartetik eta bere erakundeetatik at ulertu; gizartearekin hartuemanean dago eta batak besteari eragiten diote.

Esan genezake, Mariana Sánchez Bussok bikain adierazten duen bezala, zentzu zabal batean zuzenbidearen soziologiaren helburua dela ulertaraztea zein den justiziaren esanahia gizartearen testuinguruan³. Sánchez Bussok diziplina honen hainbat helburu aipatzen ditu, baina lan honekin hoberen uztartzen dena aipatu nahi dut hemen: arauen eta gizarteko aldaketen arteko harremana aztertzea. Honek lotura zuzena du eredu juridiko ezberdinek prostituzioari buruzko ikuskeran duten eraginarekin (eta baita alderantziz ere): esate baterako Estatu batek lege abolizionista bat onartzeak aldaketak sortzen ditu biztanleriak prostituzioari buruz dituen ideietan, eta ideia horiek eragina dute

² Bernal Camargo, Diana, Díaz Amado, Eduardo eta Padilla Muñoz, Andrea (2018), 114-116. orr.

³ Sánchez Busso, Mariana (2023), 7. orr.

sexu-langileen bizitzetan, areagotu egin ditzaketelako sexu-lanaren kontzeptzio ezkorra eta langileenganako aurreiritzi eta jarrera negatiboak. Ondorioz, berretsi dezakegu zuzenbidearen soziologiaren ikuspuntutik zuzenbidea ez dela soilik arau multzo bat: diskurtso bat eta, ondorioz, botere mota bat ere bada⁴.

Laburbilduz, metodologia sozio-juridikoa beharrezkoa da lan honetan, bakarrik horren bidez azaldu ahalko ditugulako sistema juridikoaren eta errealitate sozialaren arteko harremanak⁵. Sánchez Pererak dioen bezala, Zelanda Berriko despenalizazio ereduari buruz hitz egiterakoan, legeek eta erakundeek legitimatutako estigma estrukturala ezabatu ondoren, estigma soziala eta sinbolikoa gutxituz joango dira pixkanaka⁶. Helburu hori desiragarritzat hartuz abiatzen naiz kasuaren azterketara.

Bestalde, Carolinaren lekukotasuna oinarritzat hartzea ere erabaki metodologikoa da. Honen atzean dagoena da onartzea beraren esperientzia, sexu-langile gisa, erreferentzia nagusia izan behar dela, edo gutxienez kontuan hartu behar dela, errealitate hori aztertzerakoan⁷. Sandra Harding-en epistemologia feministari jarraitzen dio ideia honek⁸, zeinaren arabera emakumeek *ikuspuntu pribilegiatu* bat duten beren errealitatearen gainean: gauza bera esan genezake pertsona arrazializatuei buruz, edo lesbianeiei buruz edo dena delakoari buruz. Kasu honetan sexu-langileei (zehazki Carolinari) eskaintzen diogu ikuspuntu pribilegiatu hori, gezurtagarria den abiapuntu gisa gutxienez.

Abiapuntu bat delako hain zuzen, ezin gara soilik esperientzia horretan gelditu inolako iragazirik pasatu gabe eta inolako formarik eman gabe: beharrezkoa da esperientziak jaso (ezberdinak izango direlako, gainera) eta gogoeta prozesu batetik pasatzea: *Instand-point theory feminism develops from thinking through women's lives and experiences, but experience per se must be processed through reflection; it does not automatically yield insight*⁹.

⁴ Ibid., 5. orr.

⁵ Ibid., 6. orr.

⁶ Sánchez Perera, Paula (2022), 94. orr.

⁷ Ibid., 20. orr.

⁸ Harding, Sandra (1991), 39-66. orr., apud Sánchez Perera, Paula (2022), 20. orr.

⁹ Sandra Harding-en aipatutako liburuaren erreseina bat da: Rapp, Rayna (1992), 863. orr.

2. CAROLINAREN KONTAKIZUNA¹⁰

2.1. Sarrera

Carolina, beste sexu-langile asko bezala, bere prekaritate baldintzak zirela eta hasi zen sexu-lanean. Tratu-txarretako harreman batetik irten ondoren, haren amaren egoera psikologiko eskasak bien prekaritatea areagotu zuen. Carolina eta ama Extremadurara joan ziren bizitzera eta, aipatutako egoera zailetik aldendu nahian, Carolinak Erasmusa eskatu zuen Parisa joateko. Horrek zekartzan gastuei aurre egiteko, eta kontuan hartuz amari ere laguntza ekonomikoa eman behar ziola, hostalaritzan hasi zen lanean, baina hala ere nahikoa ez zenez, prostituzio-etxe batean lan egitea otu zitzaion. Bertan 7-10 emakume inguru zeuden, eta bezero bat iristen zenean eskatzen zuen zerbitzua egin beharko zuen emakumea aukeratzen zuen. Bezeroak enkargatuari ordaintzen zion, eta enkargatua zerbitzuaren ordainketaren erdiarekin gelditzen zen. *Emakume askok nahiago dute enkargatu batekin lan egin, eta fabriketako lanarekin konparatuz gero, soldatetako zer portzentai jasotzen du nagusiak? %50a baino askoz gehiago*. Hala ere, arriskutsua izan daiteke enkargatuaren eta sexu-langileen arteko harreman hierarkiko hori, azken finean, babes legal espezifikorik ez dagoenez, zaila gertatu daitekeelako adibidez praktika jakin batzuei ezezkoa ematea. Honen harira Zelanda Berriko eredu juridikoa ekarri zuen, non eskubide batzuk aitortzen diren (horien artean edozein momentutan, dirua jasota ere, adostasuna erretiratzeko eskubidea). Geroago aztertuko dugu zehaztasun handiagoz.

2.2. Estigma eta bere islak

Estigmak Carolinak aipatutako esperientzia guztiak bustitzen ditu; ondorioz, lan honetan ere zentrala izango da. Lehenengo urteetan isilean mantentzeaz gain, horrek dakarren isolamenduarekin, Carolinak momentu ugaritan nabarmendu zuen estigma sexu-langileek pairatzen duten babesgabeziaren kausa garrantzitsuenetako bat dela: estigmak erruduntasun sentimendua eta deshumanizazioa dakartza berarekin, eta nagusiak eta bezeroak horretaz baliatzen dira, izan ere erruduntasun horrek galarazi egiten die, batez

¹⁰ Carolinarekin izandako elkarrizketaren transkripzio osoa lanaren amaieran erantsi dut. Hemen berak gehien gailendu zituen puntuak erreproduzituko ditut, horiek izango baitira lanaren hezurdura.

ere gazteak edo hasiberriak diren sexu-langileei, mugak jarri ditzaketela sinistu eta horretarako gaitasuna garatzea.

Estigmaren alderdietako bat azaleratu zuen osasun mentaleko profesionalekin eta erakundeekin izandako harremanari dagokienez, eta elkarrizketa osoan zehar, bai eta gerora bidalitako WhatsApp bidezko mezuetan, espazio handia hartu zuen gaia da. Erakunde hauetan, behin eta berriz kontrakoa adierazi arren, bere pairamen psikologikoak etengabe lotzen zituzten sexu-lanarekin, eta sinestarazi zioten *sendatzeko* emakume eredu zehatz batean sartu behar zela. Patologizazio honek eragin negatiboak izan zituen beregan: batetik bere autokontzeptzioari eragiten ziolako eta bestetik ez zituztelako landu nahi izan berak gainditu nahi zituen pairamen psikologikoak. Zentzu honetan estigmak arreta psikologikorako eskubidea, baina baita ere babes judizialerako eskubidea urratzea dakar: azken finean, psikologo eta psikiatren bermerik gabe sinesgarritasuna galtzen da beste edozein autoritateren aurrean. Hainbatetan nahi izan zuen psikologo eta psikiatren zabarkeria salatu, baina estigmaren ondorioz ezin izan zuen egin. Antzeko egoerak salatzeraz auzartu diren bere lankideek jaso duten erantzunak hau erakusten du: hainbatetan fokoa sexu-langileek erasoen aurrean azaldutako erresistentzia mailan jarri da, edo ulertu da sexu-langileak izateagatik sexu izaerako edozein praktika egitea onartzen dutela esan gabe doala.

Sexu-lana legalki onartuta ez egoteak sexu-langileak biktima eta kriminal bihurtzen ditu, eta honek eragina dauka gizarteak sexu-lanaz duen ulerkeran. Arazo legal gisa ikusten dira sexu-langileak, eta horrek zilegitasuna ematen die adibidez etxetik bota nahi izateko. Poliziaren jardunbideetan ere islatzen da estigmaren eragina: oso tratu txarrak ematen dizkiete bereziki *paperik gabeko* sexu-langileei, eta bai lanean bai lanetik kanpo (adibidez bere aita, anaia, edo lagunekin daudenean) jazarri egiten dituzte.

Harreman pertsonaletan ere indartsua da estigmaren eragina. Carolinak azaltzen du nola lanean bertan ezagututako gizonezkoengandik ere jaso izan duten gutxiespena. Gizonezko askori zilegi iruditzen zaie sexua kontsumitzea, baina ez emakumeek sexuaren salmentaren bidez dirua irabaztea, eta hori egiten duten pertsonak ez dituzte emakumetzat hartzen, ez beste edozein motatako harremanak eraikitzeke emakume gisa gutxienez.

2.3. Emakume eredu hegemonikoa

Estigmak zerikusi handia du emakume normatiboaren ideiarekin: ez da berdina emakumezko sexu-langile batek eta gizonezko sexu-langile heterosexual (*gigoló*) batek pairatzen duten estigma: esan liteke gizonezko heterosexualen kasuan nolabaiteko mirespena ere eragiten dutela¹¹.

Gure kulturak balore eta ezaugarri jakin batzuei ematen die garrantzia emakumeen kasuan, eta horien artean ez dago gizonezko askorekin sexu-harremanak edukitzea, are gutxiago diru truk baldin bada. Gizonezkoen kasuan, sexualitatea behar fisiko gisa ulertzen dela, eta nolabait, zilegitasuna ematen zaie hori asetze aldera. Carolinak honako hau behin eta berriz iradoki zuen, mila aldiz izan zen patologizatua sexualitatearen eta emozioen arteko harremana *apurtuta* izateagatik. Berak azalpen fisiologikoago bat ematen dio sexualitateari eta, emakumea izanik, arazotsua dela jakinarazi izan diote psikologo eta psikiatrek.

2.4. Eredu legegileak

Carolinak eredu legegile ezberdinak dituzten herrialdeetan egin du lan, eta ezberdintasun horiek bere lanean eta bere bizitzan eduki duten eragina azaldu zizkidan. Bere lekukotasunean Zelanda Berria (despenalizazio eredu), Espainia (erregulatugabea), Frantzia (abolizionismoa), Suitza (orokorrean despenalizatuta dago, baina kantonalde bakoitzak bere berezitasunak ditu) eta Belgika (despenalizazioa) azaltzen dira. Lan honetako bostgarren atalean aztertuko ditugu eredu ezberdinak, bere esperientziekin lotuz posible den kasuetan.

2.5. Sexu-lana lan prekarizatuen aldean

Sexu-lanaren irudi zabalduena (batez ere medioen laguntzari esker) da prostituta traumatizatuak erakustean dituen, sexu abusuak jasan dituztelako, edo miserian bizi direnak eta inolako ikasketarik ez dutenak. Baina, horrelakoak argudiatzeko egiten diren ikerketak ez dira gainerako biztanleriarekin kontrastatzen, eta egiten denean [...] emaitza

¹¹ Sánchez Perera, Paula (2022), p.51.

*mistoak aurkezten dira edo ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitzen*¹². Ondorioz, esan dezakegu ezin garela ikuspegi horiengan fidatu itsu-itsuan.

Carolinak zenbait abantaila aitortzen dizkio sexu-lanari: denbora asko uzten zion eta dio ikasteko (adibidez etorkizunean beste lan bat eskuratzeko, bere kasuan bezala), eta beste lan prekarizatu batzuetan baino diru gehiago eskuratu dezake. Aipatzen du kalean esaterako hoge minututako zerbitzu batean 30€ eskuratu daitezkeela.

Hostalaritzan ibili zen lanean: nagusiak garrasi egiten zion, ez zeukan malgutasunik nagusiei mugak jartzeko eta askoz orduz gehiago ematen zituen lanean. Agian edozein lan aukeratu ahalko lukeen mundu batean beste lan bat egingo luke, baina ezagutu duenaren arabera nahiago du sexu-lana. Bestalde, eta egoera irregularrean dauden kideak edo transexualak direnak kontuan hartuz, badaude pertsonak hainbesteko aukerak ere ez dituztenak.

Carolinak dioenez, sexu-lana ez da erraza, eta beharrezkoa dela hainbat gaitasun edukitzea horretan jardun ahal izateko, batez ere kudeaketa emozionalari dagokionez. Era berean, lan horri esker horrelako gaitasun asko garatu ahal izan dituela dio. Pertsona batzuentzat ez dela egokia, edo agian ez dutela bertan egon nahi, eta pertsona horientzat laguntza emozionala egon beharko litzatekeela, estigmatizatzailea eta birbiktimatzailea ez dena.

2.6. Amatasuna eta sexu-lana

Carolinak nabarmendu zuen estigmaren beste ondorioetako bat ama ez izateko erabakiarena izan zen. Puta estigmak modu erabakigarrian baldintzatzen ditu sexu-lanean jarduten dutenen bizitza, eta adibidez Carolinak, ama ez izatea erabaki zuen, ez zuelako nahi bere haurrek, erabakitzeko gaitasunik izan gabe, puta estigma pairatu behar izatea. *Hori beste gaixo mental bat sortzea*¹³ izango litzateke. Ezin dugu ahaztu gure gizarteko irain larrienetako bat dela *putakume* hitza, eta horrek argi eta garbi uzten du puta estigmak nola eragiten dien ez bakarrik sexu-langileei, baizik eta baita beren seme-alabei ere.

¹² Ibid., 15. orr.

¹³ Erreferentziarik gabeko aipu guztiak eranskinetan aurkitu daitezkeen elkarrizketa eta WhatsApp audioetatik ateratakoak dira.

Honek eragin itzela dauka sistema judizialarekin eta orokorrean administraziooko zerbitzuekin: gurasoetako bat sexu-lanean aritzea arrisku-faktoretzat hartzen da haurren zaintza gurasoetako zeinek edukiko duen erabaki behar denean. *Emakume ez-normatibogisa nire bizitzako erabakiak dextente baldintzatu ditu honek.*

2.7. Militantzia

Carolina Putxs en Lucha kolektiboko militantea da 2017. urtetik. Estigmaren ondorioz sortutako disoziazio eta sufrimendu psikologikoaren parean kokatzen du militantzia; sexu-langileen eskubideen alde militatzeak bere subjektibotasuna beste toki batetik eraikitzen eta estigmari aurre egiten lagundu dio. Hala ere zentzu askotan estigma betiko finkatzea ere suposatu du, bere aurpegia eta bere izena publikoki baitaude lotuta sexu-lanari.

2.8. Lan baldintzak

2.8.1. Sexu-lanaren modalitate batzuk

a. Plazak: logelak edo clubak

Plazak izan daitezke pisuetan alokatzen diren logelak, hirugarrenengo batzuen menpe lan egiteko alokatzen diren logela arruntak edo club-etako logelak. Ez da inolako alokairu kontraturik egoten, ezta segurtasunik ere: ezin da jakin nor sartu edo irteten den pisutik, ezta norekin partekatuko duzun ere. Edozein momentutan bidali zaitzakete kanpora, eta baldintzak eskasak izan ohi dira: zikinkeria, material falta, auzokoekiko arazoak ekiditeko neurri falta (adibidez interfonoa desaktibatzea), berogailu falta... Gauza bera gertatzen da clubetako plazetan, hirugarrenengoentzat lan egiteak dakarrenarekin: inposatutako lan baldintzak onartu behar izatea (egin nahi ez diren praktikak, praktika arriskutsuak, toxikoen kontsumoa...)

b. Pisuak

Pisu bat alokatzean datza, bertan bizi eta lan egiteko. Aurreko ereduarekin konparatuz, ezberdintasuna da pisuen kasuan sexu-langileek beren baldintza propioen arabera egiten dutela lan. Carolinaren kasuan, bizitzeko etxebizitza bat eta lanerako beste batzuk alokatzen ditu. Donostian bizi da alokatutako pisu batean, eta atzerrian egiten du lan, pisu turistikoetan.

2.8.2. Enkargatuak

Carolinak kontatzen du ezberdintasun handiak daudela enkargatuen artean, eta askotan horren kausa dela enkargatua bera sexu-lanean aritu izan den ala ez. Batzuk oso zaintzaileak direla dio (normalean sexu-langile izandakoak), eta beste batzuk aldiz, oso zakarrak. Zerbitzuko dirua ezkutatzea edo materialekin oso xuhurrak izatea bezalako gauzak aipatu zituen: adibidez eskuoihalak garbitu beharrean, lehortu baino ez dituzte egiten. Inoiz izara berrerabilgarriak jarri dizkiotela dio, baina oso gutxitan aldatzen zituztenak. Paper-zapiak ere neurtzen zizkioten kasuren batean: bi zapi bezero bakoitzeko. Lanaren kalitateari ere eragiten zion zekenkeria zela dio.

2.8.3. Erretiroa eta pandemia garaia

Lan baldintzei buruzko hainbat puntu jorratu zituen. Hasteko, ez du erretirorik edukiko. Lau urtez egon zen autonomo gisa erregistratuta, baina coronavirusaren pandemiaren ondorioz, non sexu-langileei ez zitzaien inolako konponbiderik eman, dirua eskatu behar izan zuen eta zorra ordaintzeko diru nahikoa ez zuenez, autonomo izateari utzi zion. Erretiroak kezkatu egiten du, eta asmoa dauka dirua lortzen duenean psikologia sanitario orokorreko masterra egin eta terapeuta bilatzeko. Horrek asko aurreztea eskatzen dio: masterra ordaintzeko eta praktikaldian kanpora lanera joan gabe bizitzen jarraitu ahal izateko.

Bere kideen egoerari buruz lekukotasunean islatu zuen nola sexu-langile asko oso egoera ezegonkorrean gelditu ziren 2020ko pandemiaren ondorioz: club-ak ixtearen ondorioz, asko etxebizitza gabe gelditu eta lankide edo bezeroen etxera joan behar izan ziren. Club-etan gelditu zirenei argia eta ura kendu zizkieten kasu askotan.

2.9. Etxebizitza eta alokairu hirugarrengotza

Carolina Donostian bizi da, baina ez du Donostian lan egiten. Adibidez Donostian etxebizitzara sarbidea izateko oso ohikoa da etxebizitzaren alokairuak balio duenaren bikoitza gainditzen duten diru-sarrerak izatea. Sexu-langileek ez dutenez lan-kontraturik, ezin dituzte beren diru-sarrerak justifikatu. Noski, sexu-langilea esanez azaltzea ez da komeni, estigmaren ondorioz oso zaila baita norbaitek bere etxebizitza alokatzea lortzea.

Bestalde, alokairu hirugarrengotzaren (gazteleraz *tercería locativa*) ondorioz, lokal bat alokatzea, non sexu-lana garatuko den, proxenetismotzat hartzen da. Kontuan hartu beharra dago sexu-langile askorentzat lana egiteko erabiltzen duten pisu hori beren etxebizitza ere izaten dela, eta horrek sexu-langileak egoera eskasean uzten ditu etxebizitzari dagokionez (baita sexu-langile izatearen susmoa duten kolektiboak ere: emakume transexualak edo emakume migranteak adibidez). Honek, agerikoa denez, babesgabezia eta diskriminazioa areagotzen ditu.

Honen ondorioz, Carolinak erabaki zuen hobe zela bidaiatzea bere lana egiteko. Baita aldamenekoengan erreakzio arraroak ikusten hasi zelako ere. Donostiako pisu hori oraindu beharrean ikusten da, askotan ez duenean ezta astebetez ere erabiltzen. Etxebizitzara sarbidea izateko zailtasun hauek areagotu egiten dute beren lanpostuan bizi diren emakumeen kopurua, adibidez sexu-lanerako alokatzen dituzten logeletan edo club-etako plazetan, eta horrek babesgabezia egoera areagotzen du, zailagoa delako inposatutako lan baldintzei uko egitea.

3. MARKO TEORIKO-KRITIKOA

3.1. Hizkera eta kontzeptuak

3.1.1. Sexu/genero sistema eta patriarkatua

Ruth Mestre i Mestre irakasleak sexu-lanari buruz idatzi zuen artikulu batean Gayle Rubin antropologoak proposatu zuen¹⁴ kontzeptu honi buruz ematen duen definizioa

¹⁴ Lehen aldiz hemen: Rubin, Gayle (1975).

jasotzen du¹⁵, eta esaten digu gizarte orok sexu/genero sistema bat daukala, hau da, sexualitatea giza jardueraren produktu bihurtzeko zenbait xedapen, erakunde eta diskurtso mantentzen dituela. Mestreren ustez, sistema hau ezin da gizarteko bestelako sistemetatik at balego bezala ikertu.

Feminista batzuek patriarkatu kontzeptua erabiltzen dute sexu/genero sistema esaeraren ordeztu. Kontzeptu hori aukeratzean honako ikuspegi hau hobesten da: emakumeek gizonekiko duten menpekotasuna sistematikoa dela, ez indibiduala, eta menperatze sozial eta politiko (hau da, ez biologiko) baten ondorio dela, zeinetan gizonezko indibidualek parte hartzen duten eta emakume indibidualekin dituzten harremanetaz etekina ateratzen duten. Beharbada gehiegi orokortuz, bi modutan uler dezakegu patriarkatua: batetik, modu isolatuan eta, bestetik, beste botere estruktura batzuekin harremanetan.

Ruth Mestre i Mestre irakasleak patriarkatuaren bi ikuspuntu azaltzen dizkigu¹⁶: batetik Carole Pateman teoriarariarena, *Kontratu Sexuala*¹⁷ liburuagatik ezaguna. Patriarkatua berreraiki daiteke bere jatorri modernoan kontratu sozialari buruzko teorietatik abiatuta eta gizonek (aurretiaz) beren artean hitzartzen duten eta emakumeak helburu dituen sexu-kontratutik abiatuta: emakumeen gaineko menderatze politikoa gauzatzea eta haien gorputzerako sarbide bera izatea adosten dute. Ikuspuntu honetan sexualitatea da, emakumeen gorputzerako sarbide gisa ulertuta, patriarkatuaren gakoa. *El hecho de centrar en la sexualidad la opresión femenina hará que se presenten todas las relaciones heterosexuales como opresoras y solamente se puedan explicar la violación, el acoso sexual en el trabajo o la prostitución y la pornografía como formas de sujeción. De ahí que se conciba el matrimonio como un contrato de esclavitud*¹⁸.

Beste ikuspuntua da Catherine MacKinnon juristaren eskutik datorrena, feminismo erradikal eta marxista oinarri dituelarik. Marxismoaren eta feminismoaren arteko paralelismo bat egiten da: marxismoa boterearen teoria bat da, eta baita ere errealitatea azaltzeko teoria bat; eta feminismoa boterearen teoria bat da eta baita ere errealitate sozial sexuala azaltzeko bat. Eredu honen arabera sexu-harreman heterosexual oro

¹⁵ Rubin, Gayle (1986), apud Mestre i Mestre, Ruth (2007), 21. orr.

¹⁶ Mestre i Mestre, Ruth (2007), 16-18. orr.

¹⁷ Pateman, Carole (2018).

¹⁸ Mestre i Mestre, Ruth (2007) 17. orr.

menpekotasun edo botere sistema batean murgilduta dago, sexu-esplotazioaren bidez egituratzen dena. Harreman heterosexual oro esplotazio-sistema baten parte da, eta emakumea beti dago menpekotasun-egoeran sexu gisa. Hain dago barneratua emakumea menpekotasun horretan biktima gisa definitzen dela.

Patriarkatuaren beste elementu bat aipatzen du Mestre i Mestrek¹⁹: esfera publiko eta pribatuaren arteko bereizketarena. Autoreak Cristina Molina Petit²⁰ akademikoa aipatzen du esateko patriarkatua espazioen esleipen sistema gisa azaldu daitekeela. Jakina, emakumearen espazioa pribatua da (bertan gauzatzen dira amodioa, sexua, zaintza lanak...) eta sistema honek esfera publikorako sarbidea ukatzen die emakumeei.

Patriarkatu kontzeptuaren ulerkera ezberdin hauek daude feminismo ezberdinek sexu-lanari buruz duten posizionamenduaren oinarrian: patriarkatua modu isolatuan ulertzen badugu gizonezkoek emakumezkoengan jarduten duten menpekotasun sexual gisa, sexu-lana menperakuntza patriarkal gisa baino ezingo da ulertu. Ikuspegi honetatik abiatuz koherenteena den proposamena abolizionismoarena izango litzateke. Ikuspegi interseksional²¹ batetik begiratzen badugu patriarkatua, ordea, sexu-lana erresistentzia estrategia gisa ulertu daiteke, eta sexu-langileen eskubideen aldeko jarrera izango litzateke hoberen egokitzen zaiona.

Nik nahiago izan dut sexu/genero sistema kontzeptuaren markoan kokatzea, sistema hori neurri handiago edo txikiago batean izan daitekeelako patriarkala: guk bizi dugun sexu/genero sistema bada patriarkala, baina formula honek ahalbidetzen digu bereizketa kontzeptual bat egitea *mundu sexual bat sortzeko giza gaitasun eta beharraren, eta mundu sexual horiek antolatzen diren forma enpirikoki zapaltzaileen artean*²².

3.1.2. Interseksionalitatea

Kimberlé Williams Crenshaw ikerlariak finkatutako kontzeptua da interseksionalitatea, eta honela definitzen du: *Because the intersectional experience is greater than the sum of*

¹⁹ Ibid., 18. orr.

²⁰ Molina Petit, Cristina (1994), 21. eta 105. orr., apud Mestre i Mestre, Ruth (2007), 18. orr.

²¹ Hurrengo zaitan azalduko dut kontzeptu hau.

²² Ibid., 22. orr.

*racism and sexism, any analysis that does not take intersectionality into account cannot sufficiently address the particular manner in which black women are subordinated*²³.

Beraz, errealitatea aztertzeko momentuan kontuan hartu beharko dugu botere sistema ugarik eragiten diotela, eta ez dela komenigarria horietako bakar baten eragina azpimarratzea, sistematikoki besteen gainetik kokatuz. Bakarrik horrela lortu ahalko dugu errealitatearen ulermen egoki bat.

Adibidez, sexu-lanaren kasuan, generoa, klasea, arraza eta genero identitatea, besteak beste, hartu beharko dira kontuan ulertzeko zer botere-sistemak hartzen duten esku sexu-langileen errealitatea konfiguratzeko. Horiek guztiak kontuan hartuz baino ezin daiteke ulertu, adibidez, zergatik den sexu-langileen ehuneko garrantzitsu bat emakumezkoa eta migrantea, edo baliabide ekonomiko eskasekoa, edo zergatik egon den historikoki beste sektore batzuetan baino pertsona transexualen presentzia handiagoa sexu-lanean. Era berean, ezin dugu berdin aztertu sexu-langile txuri eta europar baten errealitatea eta migratzailea den sexu-langile batena; zirkunstantzia horiei jaramon egin beharko diegu analisi egoki bat egiteko.

3.1.3. Prostituzioa vs. sexu-lana

Sexu-lana esaerak presentzia handiagoa izango du lanean zehar, baina bi formulak erabiliko ditut bereizketarik gabe. Azken boladan *sexu-lana* erabili izan da prostituzioan jarduten duten pertsonen eskubideen aldeko sektoreetatik, *lan* gisa ulertu behar denaren aldarrikapena dela-eta, baina prostituzio hitza ere erabili nahi izan dut inguratzen duen estigma hori apur bat lausotu nahian. Hala ere, garrantzizkoa iruditzen zait aipatzea *sexu-lana* esaera erabili edo ez erabiltzearen hautuaren atzean sexualitate egokia eta lan duinari buruzko kontzeptzio batzuk daudela. Ez dira kontzeptu finkoak, eta eragina dute sexu-lanari buruzko ideietan.

Sexualitateari dagokionez, badakigu egokia zer den finkatzen duten hainbat ikuspuntu daudela gure gizartean, eta sexualitatearen eredu hegemoniko bat identifikatzea ere posible izango litzateke. Esate baterako, sexualitatea emozioei lotuta egon behar dela,

²³ Crenshaw, Kimberlé (1989), 140. orr.

ezin dela *gehiegizkoa* izan, monogamiaren barnean garatu behar dela-eta praktika jakin batzuk bakarrik barnebildu ditzakeela. Baina feminismoaren barruan ere badaude ikuspuntu ezberdinak, nahiz eta hegemonia horretatik aldendu daitezkeen. Carole S. Vancek plazeraren eta arriskuaren kontraposizioaren inguruko eztabaida azaltzen du: *para algunas, los peligros de la sexualidad [...] hacen palidecer los placeres. Para otras, las posibilidades positivas de la sexualidad [...] no sólo valen la pena, sino que proporcionan un apoyo de energía vital*²⁴. Beste adibide bat jartzeagatik, feminista batzuentzat lesbianismoa sexualitate egoki bat (patriarkala ez dena) ahalbidetzen duen hautu politikoa da.

Lan duinaren ideari dagokionez ere oso ikuspuntu desberdinak aurkitu ditzakegu gizartean: beharbada batzuentzat meatzaritza ez da lan duina, edo ez da duina baldintza material jakin batzuetan egiten den edozein lan. Agian familia aberats bateko gurasoei ez zaie duina irudituko beren alaba garbiketa-lanetan aritzea. Askorentzat prostituzioa ezin da lana izan, duina ez delako, baina beste batzuek argudiatuko dute duintasunaren ideia horren atzean sexua gauza zikin eta txartzat (bikote monogamoaren baitan egiten ez bada) hartzen duen epai moral bat dagoela.

3.2. Kasuan eragina duten botere sistemak

3.2.1. Generoa: emakume (onaren) kontzeptua.

Generoaren auziarekin hasi baino lehen esan beharra dago aipatuko ditudan botere sistema eta faktore guzti hauek amankomunean dutena diskriminazioa dela: guztiek eragiten dute diskriminazioa eta horregatik aztertu behar dira kasu bakoitzean norainoko eta nolako eragina duten aztertzeko. Gai honetan generoak paper garrantzitsua jokatzen duela agerikoa da: sexu-lanean diharduten emakumeen ehunekoa eztaba daezina da. Atal honetan azaldu nahi dudana da errealitate hori oso lotuta dagoela sexu-lanari buruzko eztabaidei eman ohi zaien enfokearekin eta sexu-langileek jasaten duten estigmaterekin.

Generoa eraikitzen den zer edo zer da, hau da, ez da biologikoki zehaztuta datorren zerbait; gizartearen eta bertan jarduten duten botere-estruktura eta diskurtsoen bidez

²⁴ Vance, Carole S. (1989), 9-10. orr.

eraikitzen da. Laura Macayak oso ondo adierazten du ideia hau: *El feminismo debe tener en cuenta que las estructuras de poder que crean el sujeto mujer son las que deben combatirse para procurar su emancipación [...]*. Ez dago aurretiaz osatutako subjekturik: botere-estrukturen diskurtsoek eratzen dituzte²⁵.

Honen bidez *emakume egokiaren* ideia sortzen da, eta gizarteko *emakume* guztiak eredu horrekin alderatzen dira. Emakume ona da horrelakoa dena, eta horrelakoa ez dena ez da emakume ona, ia emakumea ere ez da. Gure gizartean emakume on batek sexualitatea eta emozioak estuki lotzen ditu, emakume on batek bere gorputza sakratu gisa ikusten du eta horretan datza bere duintasuna. Emakume on batek bikote bakarra du eta epe luzekoa. Emakume onak biktima paperean egoten dira, pasiboak dira. Agerikoa denez, sexualgile bat ez da emakume ona; ez da zilegi sexua saltzea egoera material eskas batetik ateratzeko. Zilegitasuna aitortzen zaien kasu bakarra biktima gisa ikusten dituztenekoa da, eta haiek ere biktima paper hori onartzen dutenean. Emakumeak normalean delituen biktima izaten dira, eta ez delituak egikaritzen dituztenak: biktima estatusen kokatzen dira, eta horretarako beharrezkoa da izaki errugabe eta pasibo gisa ikustea. Ideia honek eragiten du estereotipoarekin bat ez datozen emakumeen kasuak askoz modu larriagoan epaitzea²⁶.

Carolinak berak ere ideia berdintsua adierazten zuen: *Lo primero que hacen es preguntarte si te gustó, y si dices que sí entonces ya mal. Si para ti fue horrible y estás traumatizada entonces ya hay algo que hacer contigo. Pero como digas que sí o que no te consideras una víctima, entonces estás desviada, y lo tuyo es grave*. Aipu honek oso ondo islatzen du emakume onaren kontzepzio hegemonikoak nola eragiten duen horrekin bat ez datozenen bizitzan, patologizatzerarekin iritsiz.

Ondorio subjektiboak agerikoak dira: *Suponía que para estar sanada tenía que entrar dentro de un modelo de mujer en que nunca había encajado. Pero si no me forzaba a mí misma a entrar dentro de ese modelo de mujer, yo estaba amenazada de acabar muy mal literalmente. Estuve durante muchos años muy confusa, y ese paso de salir del armario fue una forma de romper con todo eso: bueno, yo no he seguido el modelo de mujer, he*

²⁵ Macaya, Laura (2013), 27. orr.

²⁶ Ibid., 45. orr.

llegado incluso a la prostitución, fue una manera de reafirmarlo. Y de poder reconciliarme con eso.

Maila instituzionalean ere badu eragina: botere judizialarekin batera mediku, psikiatra, poliziak... jarduten dute. Macayak dioen moduan, zuzenbide penalak beste *ezagutza sistemekin* batera jarduten du subjektibitateak sortu (kasu honetan emakumeena) eta kontrolatzeko²⁷. Honen harira, Mestre i Mestrek dio nola bere ustez prostitutaren figurari gainontzeko emakume guztiak kontrajartzen zaizkion, kontrol teknika gisa, *ez baduzu puta bat izan nahi beste modu honetan jokatu behar duzu* esanez bezala. Eta horren ondorioz emakumeek bere kapital erotikoa hori modu produktibo batean baliatzea eragozteko lortzen da²⁸.

3.2.2. Klasea, arraza/jatorria eta tokiko/migrante statusa.

Carolina ez da emakume arrazializatua eta ez da migrantea; jatorriz Valentziatik datorren emakume zuria da. Hasiera batean pentsa genezake arrazoi horrengatik Carolinaren kasuan ezaugarri hauek ez dutela paperik jokatzeko, eta agian egia da hein batean; ez ditu migrante izatearen zailtasun administratibo eta burokratikoak pairatzen, ezta arrazakeria ere zentzu hertsian. Baina kontuan hartu beharra dago arrazializazioak norabide ezberdinetan jokatu dezakeela, eta esate baterako, txuria izanik (pribilegiatua, alegia), kuestionatzea bere sexu-langile izateko erabakia, zilegi izango ez balitz bezala.

Lan honetan ez dut sakonduko migrazioaren eta arrazaren azuieran, baina aipamen bat egin nahi dut. Espainiako kasua hartuz, Magdalena López Preciosoren arabera berak aztertutako urte guztietan migratzaileen presentzia beti da %90-a baino altuagoa, eta 2005. urtea aipatzen du bereziki, non ehunekoa %98,77-ra iritsi zen²⁹. Duela urte batzuetako datuak diren arren, eta nahiz eta posible den datu horiek zertxobait aldatu izana, atal honen helburuetarako nahikoa dira: azken finean, argi gelditzen baita arrazaren eta jatorriaren eragilea ezinbestean kontuan hartu behar dela sexu-lanaz hitz egitean. Mestre i Mestrek dioten bezala, *la funcionalidad del racismo y el sexismo para el sistema*

²⁷ Macaya, Laura (2013), 44. orr.

²⁸ Mestre i Mestre, Ruth (2007), 26. orr.

²⁹ López Precioso, Magdalena (2007), 106. orr.

*capitalista hará que la incorporación de las mujeres inmigrantes en el trabajo globalizado se produzca en condiciones especialmente o doblemente de explotación*³⁰.

Klaseari dagokionez ere errealitatea argia da, klase ertain eta altuetako sexu-langileen zenbakiak anekdotikoak dira. Zenbait feminismotatik, eta abolizionistek asko erabiltzen duten argudioa da, esan izan da ezin dela *askatasunaz* hitz egin, hau da, diru-truke sexu harreman bat izateko askatasunaz hitz egin, behar ekonomikoaren baitan kokatzen garenean³¹. Eta egia da hori dela liberalismoari egiten zaion kritiketako bat: ezin daiteke esan kontratu bat, nahiz eta teorikoki berdina izan bi alderdientzat, berdintasun egoera batean egiten denik alderdietako bat enpresaren jabea eta bestea langileak direnean. Baina hau horrela da lan guztietan, ez bakarrik prostituzioan. Gizarteko langile gehienek ez lukete beren lana egingo diru truke izango ez balitz.

Klasea kontuan hartzea guztiz beharrezkoa da. Baina ez dut uste koiuntura honetan logikoa denik (ezta mesedegarria ere) prostituzioari gizarteko gainontzeko arazoei ematen zaien trataera ezberdina ematea. Langileen eta enpresarien, eta kasu batzuetan langileen eta bezeroen arteko harremanaren erroan dago desberdintasun hori eta, izan ere, horixe da lan zuzenbidearen izatearen beraren arrazoia.

3.2.3 Adina eta osasun psiko-fisikoa.

Adina eta osasuna ere izan daitezke diskriminazio iturri sexu-langileek beren eskubideak egikaritzeari dagokionez. Osasunari dagokionez, gaixotasun mental bat pairatzeak agente juridikoengandik infantilizazio jarrera bat jasotzea ekarri dezake: norberaren agentzia eta kredibilitatea ezabatuz. Honek eraginak izango ditu pertsona horrek bidegabekeria bat salatzeke momentuan edukiko duen jarreran. Ohikoa da ere, Carolinaren kasuan islatzen den bezala, gaixotasun mental horiek sexu-lanari egozte, sufritzen duen pertsonak dioena dioela.

Adinaren aldetik, gaztea izateak babesgabezia handia sor dezake, batez ere beste sexu-langile batzuen laguntza izan ezean ez dagoelako esperientziarik lanaren zailtasunei aurre

³⁰ Mestre i Mestre, Ruth (2007), 28. orr.

³¹ Sánchez Perera, Paula (2022), 162-163. orr.

egiteko edo laguntza eskatzeko: *Las distinciones de edad, sexo, etnia y clase están relacionadas con las diferencias de poder, que a su vez explican el grado en que cada uno de esos grupos es capaz de imponer sus reglas a los otros...*³² Bestalde, zenbat eta gazteago hasi, orduan eta barrurago iritsiko dira estigmaren eraginak: *Pero sí, obviamente el estigma claro que influye en el desarrollo psicológico y personal. Sobre todo porque yo empecé siendo muy joven, con 23.*

4. ESTIGMAREN ARAZOA

An especially influential definition [of stigma] is that of Jones et al. (1984), who use Goffman's (1963, p. 4) observation that stigma can be seen as a relationship between an attribute and a stereotype to produce a definition of stigma as a mark (attribute) that links a person to undesirable characteristics (stereotypes). Link eta Phelanek diskriminazioaren elementua gehitzen diote definizio honi³³.

Definizio honen arabera estigma pertsona bati egozten zaion atributu bat da, desiragarriak ez diren ezaugarriekin lotzen dena. Sánchez Pererak sei ezaugarri identifikatu ditu Phelan eta Linken lanetik abiatuz: markatzea (1), estereotipo negatiboak (2), *haiek* eta *gu* arteko bereizketa, deshumanizazioa (3), estatus galera (4), diskriminazioa (5) eta azkenik, boterea (6)³⁴.

Estigmaren definizio labur hau edukita, atal honetan *puta*-estigmaren ondorioetako batzuk aztertuko ditugu; konkretuki Carolinaren kasuan eragina dutenak eta hark bere lekukotasunean jorratu zituenak. Azterketa errazteko hiru multzotan banatu ditut esperientziak: batetik subjektibotasunari eragiten diotenak, bestetik instituzio ezberdinekin zerikusia dutenak eta azkeneko multzo batean bestelako eraginak dituztenak (materialak adibidez).

Hala ere, kontuan hartu behar da estigmaren eragin hondatzailea bere adarketa guztien batura dela: *It is the existence of multiple stigma mechanisms and multiple stigma*

³² Becker, Howard (2009), 36-37. orr.

³³ Link, Bruce eta Phelan, Jo (2001), 365. orr.

³⁴ Sánchez Perera, Paula (2022), 52-55. orr.

*outcomes that helps explain why stigma is a persistent predicament—why, on average, members of stigmatized groups are disadvantaged in a broad range of life domains (e.g. employment, social relationships, housing, and psychological well-being)*³⁵.

4.1. Estigmaren ondorio subjektiboak.

4.1.1. Norberaren ikuspegia

Estigmak eragin handia dauka pairatzen duen pertsonaren autokontzeptzioan. Estigmaren eduki diren ikuskera negatibo orokortuak ez barneratzea zaila da. Sexu-langileen kasuan, sozialki hain gaitzetsia dagoen lan batean jarduteak erruduntasun sentimenduak eragiten ditu eta pairatutako biolentzien erantzule norbera dela sineztarazi: *te ves en una posición en la que, si ya por estigma piensas ‘yo no tengo derecho a decir no porque para eso me he metido en esto y soy súper culpable’, si encima hay una persona que te esta presionando...*

Honek bi mailatan sortzen ditu ondorioak: lehenik, sexu-langileen osasun mentalean. Link eta Phelanek honakoak aipatzen dituzte: autoestima bajua, depresioaren sintomak eta antsietatea³⁶. Bigarrenik, arrisku fisikoak ere eragiten ditu: erruduntasun sentazio horrek, Carolinaren aurreko esaldian ikusi dugun bezala, limiteak ezartzea galarazten du, bai eta limite horiek errespetaraztea ere. Enpresariak eta bezeroak baliatu egiten dira honetaz: *si nosotros no tuvieramos ese estigma de como me he metido aquí mi no no tiene valía... es que es un estigma que te deshumaniza, y si ellos no se aprovechasen de ese estigma, estaríamos en una posición mucho menos indefensa*. Gainera, gero ikusiko dugunez, poliziarengandik eta sistema judizialek tradizionalki jasotako tratamenduak konfirmatu egiten ditu beldur hauek.

4.1.2. Harreman sozialak

³⁵ Link, Bruce eta Phelan, Jo (2001), 380. orr.

³⁶ Link, Bruce eta Phelan, Jo (2001), 374. orr.

*Carente de la saludable realimentación (feed-back) del intercambio social cotidiano con los demás, la persona que se aísla puede volverse desconfiada, depresiva, hostil, ansiosa y aturdida*³⁷.

Putxa-estigma ez dio bakarrik norbere irudiari eragiten, besteen jarreran ere efektu negatiboak sortzen ditu. Aunque una intente superar el estigma interiorizado, e intente establecer buenas relaciones, al final tu posición genera un rechazo. Harreman sexua-afektiboak dagokionez ere eragin handia dauka: y a lo mejor a esa persona la has conocido en el trabajo, y luego te está rechazando por el trabajo que tienes.

Sorgin-gurpil bat sortzen du honek: estigma zaildu egiten ditu sexu-langileen eta gainontzeko pertsonen arteko harremanak, estigma sendotuz (ezagutzen ez dugun errealitate horren hutsuneak diskurtso hegemonikoekin eta aurreiritziekin betetzen ditugulako).

Estigmaren ondorio zuzena den bakardade honek zentzu ezberdinetan dauzka ondorioak: osasun mentalari dagokionez depresio sintomak sortu ditzake; eta bestalde, lehen aipatu bezala mugak jartzeko indarrak urritu ditzake eta babesgabezia egoerak sortu, zaurgarritasun egoerak sortzen dituelako, Carolinak dioten bezala: *dependiendo de la estructura que tengas, de tus herramientas, de tu resiliencia... Si luego encima no tienes mucha red fuera, porque el estigma te la ha anulado, y tú también te has recluso por el miedo al rechazo social... pues claro que te arrastra.*

4.1.3. Militantzia

Carolinentzat, militantzia estigmari aurre egiteko tresna izan da: *me ha servido para construir mi subjetividad desde otro lugar y para validar ese lugar, para también entrar en contacto con otro tipo de gente que lo valora. Me ha servido bastante para desestigmatizar a un nivel muy subjetivo... nahiz eta maila batzuetan betiko kondena ere bihurtu den: a otros niveles ya me he quedado con el estigma de por vida, mi cara, mi nombre...*

³⁷ Goffman, Erving (2015), 24. orr.

4.2. Estigmaren ondorio estrukturalak

4.2.1. Osasun sistema

Lekukotasunean espazio gehien hartzen duen gaia da hau, bereziki osasun mentaleko zerbitzuei dagokienez. Carolinak bere lanarekin zerikusirik ez zuten kontuengatik jo zuen psikologia klinika ezberdinetara eta, nahiz eta aurretiaz azaldu landu nahi zituen gauzak beste batzuk zirela, beti bideratu zuten sexu-lanera: ez zuten bere eskaera errespetatu (esate baterako psikologia humanistaren kasuan oinarritzkoa dena), infantilizatu egin zuten eta zuzenean patologizatu: *el segundo informe fue porque en el centro de psicoterapia humanista donde se habían comprometido conmigo a hacer una terapia que no me discriminara por mi trabajo y donde no se proyectaran prejuicios sobre mí basados en el estigma puta, luego hicieron todo lo contrario y encima dijeron que necesitaba atención clínica.*

Beraz, hegemonikoki onartzen den emakumearen eredu horrekin bat egin nahi ezean, asistentzia psikologikoa ukatzen zaie sexu-langileei. *Suponía que para estar sanada tenía que entrar dentro de un modelo de mujer en que nunca había encajado. Pero si no me forzaba a mí misma a entrar dentro de ese modelo de mujer, yo estaba amenazada de ‘acabar muy mal’ literalmente.* Gizarteko estrukturen bidez eta estigma sozialaren bidez sortutako babesgabezia hori baretu beharrean, sakondu egiten da psikologiaren eremuan. Honen aurrean, estigmatizatzailea eta birbiktimitizatzailea ez den zerbitzu psikologiko baten beharra aldarrikatzen du Carolinak.

4.2.2. Sistema judiziala

Egoera antzekoa da sistema judizialari dagokionez. Edozein lekutan sexu-lana estigmatizatuta dagoela argi dago, baina eredu abolizionistetan, gainera, agente juridikoek eta bestelakoek (poliziak, langile sozialek eta abar) delitugile gisa ikusten dituzte sexu-langileak, *nos ven como un problema legal.* Eta horrek ondorioak ditu babes juridikorako eskubideari dagokionez: *y luego, en el juicio, la jueza diciendo que claro, que no se había resistido. Él utilizó el que ella fuera puta para decir que eso se lo habían hecho en el trabajo, que él no le había hecho nada. Y encima la policía cogió los móviles de ella y hizo un volcado de datos, y se quedaron con sus móviles una buena temporada.*

Judicialmente tenemos las de perder. ¿Te has portado mal, no has sido una buena mujer? Pues vas a recibir un castigo.

Honen ondorioz, sexu-langileek eraso bat jasatean, aukera handiak daude eraso hori salatu nahi ez izateko. *To the extent that stigmatized groups accept the dominant view of their lower status, they are less likely to challenge structural forms of discrimination that block opportunities they desire*³⁸.

Beste pertsona batzuk ere baliatu daitezke errealitate honetaz sexu-langileak salaketak jartzea merezi ez duela sinistarazteko. Egun hauetan entzun dugun kasu bat da *Médicos del Mundo* erakundearena: Menorkako delegatu ohiak lau sexu-langileri, erakundearen laguntza jasotzen zutenak, sexu abusuak egin zizkien beren zaurgarritasun egoeraz baliatuz. Sexu-langileek salatu dute erakundea gertaera hauek estaltzen saiatu zela, eta ez zuela salaketarik jarri hilabete batzuk igaro arte³⁹. Hainbat sexu-langilek salatu dute, sare sozialen bidez, erakundeak salatzea erabaki zuela soilik langileen gertaerak publiko egitearen mehatxuaren ondorioz⁴⁰.

4.3. Beste ondorio batzuk

4.3.1. Amatasuna

Estigmak edozein bizitzatan erabakigarriak diren erabakiak baldintzatzen ditu. Carolina erabat determinatuta egon da ama ez izateko erabakia hartzerakoan: *te das cuenta de que si tienes un hijo sin haberlo pedido desde que nazca se va a encontrar con que es el hijo de una puta de cara a todo el mundo...¿Cómo lo puedo exigir a una persona que no me ha pedido venir al mundo que tenga ese nivel de madurez y que no pueda ser jamás un igual? Es que voy a generar otro enfermo mental al final.*

³⁸ Link, Bruce eta Phelan, Jo (2001), 375. orr.

³⁹ Amorós, Mayte. (2024ko apirilaren 18a). Un juzgado imputa a Médicos del Mundo en una causa por abusos sexuales de su exdelegado en Menorca. *ABC*. <https://www.abc.es/sociedad/juzgado-imputa-medicos-mundo-causa-abusos-sexuales-20240418190251-nt.html>

⁴⁰ Saisei-chan, (2024ko apirilaren 18a). *Twitter*. https://twitter.com/Saisei_chan/status/1780902970277703902?t=PgFfs2RQM6OYjZ7zA17MQ&s=08

Put-estigbaren barruan kokatu dezakegun estereotipo indartsuenetako bat *am* txarrarena da. Carolinaren esperientziaren eskutik ikusi dugu noraino eragiten dien honek sexu-langileei bizitzako erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan, baina sistema judizialean ere badu bere isla: *a nivel legal, las acusaciones de deshonra femenina [...] adquieren una forma punitiva concreta*, dio Gail Phetersonek, eta beste adibide batzuen artean, esaterako, ume bat prostituzio testuinguru batean heztea zigortzen dela aipatzen du (*ama ez-egokitua*)⁴¹.

4.3.2. Etxebizitzara sarbidea

Etxebizitzara sarbidea edukitzeko beharrezkoa izan ohi da ordaintzeko gaitasuna frogatzea eta hori nominaren bidez egiten da. Sexu-langileek ez dutenez halakorik, zailtasun handiak izaten dituzte beren ordaintzeko gaitasuna frogatzeko. Alokairu hirugarrengotzaren figuraren eta stigbaren ondorioz, gainera, oso zaila da etxebizitza bat alokatzea lortzea prostituzioan jarduten dutenentzat. *Esto excluía del acceso a la vivienda tanto a trabajadores sexuales como a colectivos sospechosos de serlo; mujeres trans, o mujeres migrantes. Y esto lleva a aumentar la discriminación, la desprotección, etc.*

Legegilearen erabakiek (nahiz eta ustez emakume hauei *laguntzeko* egin) zuzenean eragiten diete sexu-langileei: benetan zaila da sexu-lanean aritu eta etxebizitzara sarbidea izatea, zigortu egiten baita sexu-langileei pisuak alkitatzea eta gainera, pisu arrunt batean sartzeko, nomina eskatzen delako. Nomina bat edukitzeko onartu egin beharko litzateke prostituzioa sexu-lana dela zentzu hertsian. Honen ondorioz, Carolinak atzerrian lan egitea erabaki zuen. Horrek asko areagotzen ditu bere gastuak etxebizitzari dagokionez. *Total que llevo dos años y medio viviendo en un piso que es caro, y en el que a veces no estoy la mitad del tiempo [...]a mí el gasto de vivienda se me puede duplicar o triplicar en un mes por estas leyes que me quieren salvar.*

Erabaki hori hartzeko beste arrazoietako bat, berriz ere, estigma izan zen: *pero empecé a ver unas reacciones un poco extrañas por parte de los vecinos, y entonces decidí empezar*

⁴¹ Pheterson, Gail (2000), 55. orr.

a viajar. Auzokideei ez zaie gustatzen sexu-langilerik egotea beren eraikinetan, eta oso ohikoa da salaketak jartzea adibidez zarataren aitzakia erabiliz.

Azkenik, etxebizitzarako sarbideak sexu-langileei planteatzen dizkien arazo guzti hauek ondorioak dauzkate bere lanean: *el no tener acceso a la vivienda hace que muchas compañeras vivan en las habitaciones que alquilamos y también en los clubs [...] sitios en los que trabajamos para terceros y que, por tanto, para tener una vivienda nos tenemos que subsumir a las condiciones de trabajo que nos impongan*. Beste behin, estigmaren eta debekuaren legeen bitartez sexu-langileen negoziatzeko ahalmena eta indarguneak ahuldu egiten dira.

4.3.3. *Lan baldintzak*

Crítica de la razón puta liburu bikainean maiz sexu-langileei egiten zaien galdera bat aipatzen da: *gustatuko litzaizuke zure alaba prostituta izatea?* Galdera honek entzulearen sentimenduetan eragitea du helburu, edo nolabait nazka eragitea⁴², ez egoeraren azterketa egoki bat egitea. Antzeko zer edo zer gertatzen da orokorrean sexu-lanaz dugun ikuskerarekin: auresuposatzen da erantzuna ezezkoa dela, beste lan bat egin ahalko balute sexu-lana ez luketela sekula aukeratuko. Baina haratago joan ezkerro, eta benetan (lehenbiziko momentuko sentimenduez haratago, askotan moralak gidatuak) begiratuko bagenio lan bakoitzaren baldintzei, agian erantzuna ez litzateke hain argia izango.

Borondateari dagokionez, esan ohi da bakarrik egoera ekonomiko xumeen ondorioz hasten direla emakumeak prostituzioan, ez dagoela inongo bokazio edo desirarik erabaki horren atzean. Horrekin ados egon gaitezke, baina kasu berarekin aurkituko gara kualifikatuta ez dauden lanen gehiengoan: hostalaritzan, garbiketan, fabriketan, zaintza lanetan... eta proposamena ez da izaten *lana* ez direla argudiatu eta laneko eskubideak ukatzea.

Garrantzitsua iruditzen zait, hala ere, zehaztea kontua ez dela sexu-lanaren estigmari gehiegizko positibotasun eta idealizazio batekin erantzutea; ez da gauza bera sexu-langileen agentzia onartzea eta ahalduntzearen paradigma batekin parekatzea. *Se trata,*

⁴² Sánchez Perera, Paula (2022), 34. orr.

*más bien, de reconocerla por razones de derechos humanos y de justicia social, en términos de redistribución y reconocimiento*⁴³.

Lan ezberdinetako baldintzen gaira bueltatuz, honakoa da Carolinaren esperientzia: *Pero tal y como están las cosas... la gente nos quedamos un año y otro y otro y otro porque se gana más dinero no teniendo que estar matándote durante horas y también por el maltrato que hay en el mundo laboral. Yo recuerdo cuando trabajaba en hostelería, es que no quiero volver a que una jefa me diga: que te calles, gilipollas, no quiero volver a que un jefe me esté chillando, no quiero que se vuelva a creer nadie con ese derecho. Y me siento mucho más respetada en el trabajo sexual, donde yo puedo poner mis límites y puedo hacer las cosas a mi manera, que trabajando para alguien... Si mucha gente que conozco dice la psicópata de mi jefa.*

Idea bera azaltzen da Paula Sánchez Pereraren liburuan jasotako Kenia izeneko sexu-langilearen testigantzan: *tienes que tener en cuenta que esas salidas que nos ofrecen son los motivos de entrada. Porque la mayoría de las mujeres que yo he conocido al viajar son mujeres que provienen todas de esos empleos precarizados que nos ofrecen como salida: servicio doméstico, cuidado de ancianos, camareras*⁴⁴.

Ikusi dugu nola patologizatzen zuten jarrera hau (sexu-lana traumatiko gisa ez ikustearen ikuspegia) Carolina artatu zuten psikologoek. Baina Carolina, eta sexu-langile guztiak (bestela ezin ditugulako sexu-langiletzat hartu, baizik eta delitu baten biktimatzat) adinez nagusiak dira. Emakume ororen *bai* edo ez esateko, eta erabaki hori errespetatua izateko eskubidea defendatuz gero, zergatik ez sexu-langileena? Clara Serrarekin batera uste dut emakumeak *adinez nagusi gisa* tratatuko baditugu, erabakitzen duten hori errespetatu behar dugula⁴⁵. Egia da, gorago ere aipatu den bezala, inuzentea izango litzatekeela kontratuak egiteko erabateko adostasunean sinistea. Baina legegilearen esku uztea zer adostasun den baliozkoa eta zein ez are arriskutsuagoa izan daiteke. Serrak, bere liburuan, Gayle Rubinen ideia bat azaltzen du: *precisamente desde una posición feminista, debemos tener siempre una sospecha crítica hacia la regulación de la sexualidad*; eta

⁴³ Ibid., 201. orr. Azken esaerak Nancy Fraser eta Judith Butlerren arteko elkarriketa bikain bati egiten dio erreferentzia. Gaztelaniaz eskuragarri dago Traficantes de sueños argitaletxean 2017. urtean argitaratu zenetik.

⁴⁴ Sánchez Perera, Paula (2022), 194-195. orr.

⁴⁵ Serra, Clara (2024), 99. orr.

gehitzen du: *somos nosotras las principales interesadas en no convertirnos en lo que Butler llama partisanas de la legislación. Solo una visión ingenua y, en el fondo, dudosamente feminista podría olvidar que el principal objetivo de la regulación de la sexualidad en una sociedad patriarcal ha sido siempre el disciplinamiento sexual de las mujeres*⁴⁶.

Bestalde, esan ohi da sexu-lana patriarkatuaren isla bortitzenetakoa dela, emakumezkoak direlako aipatutako lana egiten dutenen gehiengoa, betidanik gizonezkoekiko menpekotasunaren sinbolo izan delako eta *duina* ez delako. Horren orde, garbitzaile lanak edo adinekoen zaintzako lanak proposatu ohi dira. Analogiak egin daitezke: arazoa agian sexuarekin daukagu, eta ez matxismoarekin. Susmo hau konfirmatzen da Gail Phetersonen proposatzen duen honetan: lau dira, bere ustez (Bunch, Richet eta Wittig-en lanetan oinarrituz) emakume eta gizonen arteko harremanak arautzen dituzten instituzioak: *las cuatro instituciones clave que regulan las relaciones entre las mujeres y los hombres son necesariamente la heterosexualidad, el matrimonio, la reproducción y la prostitución*⁴⁷. Lau instituzio horietako ezta batean ere ez da parekotasunik ematen emakume eta gizonen artean: kasu guztietan gizonezkoek autoritate, eskubide eta status handiagoak dituzte, emakumezkoek zerbitzuak eman behar dizkiete gizonezkoek eta biolentzia edo biolentziaren mehatxuak emakumezkoen gaineko kontrola dakarte. Baina soilik prostituzioa hartzen da ez-zilegitzat.

5. SEXU-LANA ARAUTZEKO EREDU LEGEGILEAK ETA HORIEN OINARRI IDEOLOGIKOAK

Carolinak sexu-lanean aritzearen ondorio negatiboez hitz egiten zuenean estigma eta eredu legegile ezberdinak aipatzen zituen faktore garrantzitsu gisa. Atal honetan sexu-lana arautzeko eredu ezberdin horiei erreparatuko diegu: lehen azpiatalean, batez ere Paula Sánchez Pereraren⁴⁸ eta noizean behin Encarna Carmona Cuencaren⁴⁹ lanei jarraituz, sexu-lana arautzeko mendebaldeko eredu ezberdinak aztertu ditut, eta Carolinak

⁴⁶ Ibid., 117-118. orr.

⁴⁷ Pheterson, Gail (2000), 18. orr.

⁴⁸ Sánchez Perera, Paula (2022).

⁴⁹ Carmona Cuenca, Encarna (2007).

ezagututako ereduetan bere esperientzia txertatu dut. Bigarren azpiatalean Espainiako egoeran jarri dut fokoa, bertan bizi delako Carolina eta bertan garatzen duelako bere jarduna *Putxs en Lucha* kolektiboak.

5.1. Gaur egungo ereduak⁵⁰

5.1.1. Erregularismoa

1802an sortu zen Frantzia soldaduen kutsadura ekiditeko helburuarekin, eta inbasio napoleonikoen ondorioz zabaldu zen⁵¹. Eredu honen oinarrian dagoen sexu-lanaren ikuskera *gaizkia saihestezina*rena da; kontrol sozialeko funtzioak izan ditzake, baina gizartearen osasuna babesteko higie-neurriak hartu behar dira. Sistema honek bezeroen eta gizartearen interesak ditu abiapuntu, ez sexu-langileenak (izan ere sexu-lana ere du honetan ez da juridikoki lan gisa hartzen) eta etengabeko kontrol polizial eta medikoak jasanarazten dizkie. Kaleetan ere eremu batzuk erreserbatzen zaizkie, ez daitezen begibistan egon eta ez ditzaten ez kaleak ez biztanleen itxura garbia zikindu. Sexua kontsumitzen duten horiengan ez da inolako kontrolik egiten⁵².

Erregularismoaren oinarrian ez dago eskubideak bermatzeko grina, baizik eta kontrolatzekoa: *la reglamentación se inscribe [...] en la configuración de una red disciplinaria, en el sentido foucaultiano, que se compone tanto de técnicas como de instrumentos que a través de la regulación del burdel y del hospital controlaban los cuerpos de las mujeres*⁵³. Sexu-langileak kontrolatu beharreko gorputz potentzialki gaixoak eta zikinak dira. Ez da beraien jarduna debekatzen neurri batean beharrezkoak direla uste delako, baina beharrezko *gaizkia* dira, eta beren interesak ez daude mahai gainean.

5.1.2. Abolizionismo klasikoa

⁵⁰ Sailkapena Paula Sánchez Pererarena da, sailkapen gehienetan sinpleago azaltzen da eta ez dira abolizionismo klasikoa eta iparraldeko neoabolizionismoa bereizten.

⁵¹ Sánchez Perera, Paula (2022), 59. orr.

⁵² Carmona Cuenca, Encarna (2007), 51. orr.

⁵³ Sánchez Perera, Paula (2022), 62. orr.

Britainia Handian sortu zen XIX. mendeko bigarren erdian, erregularismoaren kontrako erreakzio gisa⁵⁴. Josephine Butler hartu dezakegu eredu honen ordezkari teoriko gisa, eta protestantismoarekin eta liberalismo burgesarekin lotu behar dugun eredua da, lehenengo olatuko feminismoaren testuinguruan. Ez litzateke bidezkoa abolizionistei ‘puritano’ izenondoa eranstea, beraiek izan baitziren poliziaren gehiegikeriak eta erregularismoaren moral bikoitza salatzen lehenak⁵⁵. Hau izan zen abolizionismoaren hasiera, baina gerora beste bi korrante gauzatu ziren. Lehena Josephine Butler eta Elisabeth Garret Anderson abolizionistaren arteko elkarriketaren ondorioz: bigarren horren ustetan CD Acts delakoei⁵⁶ esker osasuna eta familiaren instituzioa babesten baitziren.

Abolizionismoa Europako eredu *ofiziala* bihurtu zen 1949ko *Pertsonen salerosketa eta besteren prostituzioa esplotatzeko Nazioarteko Hitzarmenaren* bitartez. Aipatutako azken korrantea da Estatu Batuetan 80. eta hamarkadan zabaldu zena, feminismo erradikal esaten zaion horren baitan. Korrante honen oinarrian dagoena da prostituzioak *berez* jotzen duela emakumeen duintasunaren kontra, eta genero indarkeriaren irudi gogorrenetakoa dela. Korrante honen baitan feminismo kulturalaren ildoko talde bat ere egon zen, orokorrean sexu-askapenaren mugimenduak generoen arteko arrakalada handitu zuela uste zuena. Eredu honek sexu-langileak salbatu beharreko biktimatzat ditu eta, ondorioz, proposatzen diren neurriak birgizarteratzekoak dira. Egungo espainiar ereduak ezaugarri ugari konpartitzen ditu feminismo kultural honekin: prostituzioaren funtzio sinbolikoaren azterketa eta prostituzioa patriarkatuaren beste instituzioetatik aparte ulertzea (esate baterako ezkontzatik aparte)⁵⁷.

5.1.3. Debekuaren eredua

Eredu honen ikuspuntutik prostituzioa eta trata zuzenbide penalaren bitartez zigortu behar diren delituak dira: bai proxeneten, bai prostituten, bai bezeroen kasuan. Gizartearen morala zikintzen duen, *berez* gaizki (moralki gaizki) dagoen jarduera bat delako. Eredu hau 1885eko Ingalaterran edo frankismoan aurkitu dezakegu. Gaur egunera etorriz,

⁵⁴ Ibid., 62. orr.

⁵⁵ Ibid., 63. orr.

⁵⁶ Contagious Diseases Acts (1866): soldaduak sexu-transmisioko gaixotasunetatik babesteko arauak. Prostitutak izatearen susmoak zituzten emakumeak atxilotzea ahalbidetzen zuten.

⁵⁷ Sánchez Perera, Paula (2022), 68. orr.

Estatu Batuetako zenbait estatutan, Irlandan edo SESB-eko kide izandako horietan⁵⁸ ere debekuaren eredia daukagu. Hala izan zen Danimarkan ere 1999 urtera arte⁵⁹.

Dakigunez, debekuak ez du prostituzioa desargetarazten: ezkutura bidaltzen du, prostituak proxeneten eta enpresarien eskutik utziz beste inolako babes eta bermerik gabe. Hau da sexu-langileentzat lazgarriena den eredia: erregularismoak ez zituen kontuan hartzen sexu-langileen interesak, baina arauketaren bidez, zeharka behintzat, zenbait berme eskuratzen zituzten. Debekuaren eredian ez dago inolako babes juridikorik, sexu-langileek ezin diote poliziari laguntza eskatu (are gehiago, poliziari ihes egin behar diote) eta estigmak gora egiten du.

5.1.4. Erregulazioaren eredia edo legalizazioa

Eskubideen aldeko mugimenduaren eraginaren ondorioz sortu zen eredia da, Europako herrialde ugartan aurkitu dezakeguna: Alemania, Austria, Suitza, Danimarka, Grezia, Turkia eta Herbehereak. Eredu honetan sexu-langileei lan-eskubideak aitortzen zaizkie: Segurtasun Soziala, langabezia prestazioa eta abar.

Kontuan hartuz industria honetan duten presentzia, sistema honen hutsune handiena migratzaileen egoerarena da: erregistro bat egitea eskatzen da, eta horretarako zenbait baldintza bete behar dira, oso zailak migrante gehienentzat. Honek *bi mailako* sistema bat sortzen du: agerian dagoen maila bat, erregulatua, eta ezkutuko beste maila bat, non langileen gehiengoa kontzentratzen den eta non ez diren lehenengo maila horretan jasotzen diren bermeak ziurtatzen⁶⁰.

Hala ere, erregistratu beharrak ez die soilik migratzaileei eragiten: erregistroak nolabaiteko publikotasuna suposatzen du eta, estigma dela-eta, askorentzat asumitu ezin den ondorioa da. Gainera, erregistroak askotan ez dituzte lan edo enpresaritza arloko atalek egiten, baizik eta poliziak, eta honek erregularismoaren oinarrietara garamatza berriz: espazio publikoaren kontrola, poliziaren kontrola eta kontrol medikoak. Eta are garrantzitsuagoa dena: eredu hauetan sexu-lana ez du lan zuzenbideak arautzen, baizik

⁵⁸ Ibid., 71. orr.

⁵⁹ Carmona Cuenca, Encarna (2007), 50. orr.

⁶⁰ Sánchez Perera, Paula (2022), 73-74. orr.

eta lege penalek edo bereziki sexu-lana arautzeko sortutako horiek. Hau da sexu-lanaren enpresariak nahiago izaten duten eredua, eta hori oso seinale txarra da sexu-langileen eskubideen aldeko ikuspuntuan kokatzen bagara.

Carolinak autonomoki egin izan du lan Suitzan. Honakoa da berak ezagutu duen sistema⁶¹: poliziarengana joan beharra dago erregistroa egitera, eta gero, adibidez, etxebizitza turistiko bat alokatu daiteke bertan lan egiteko. Poliziarenean lan ministeritzako webgune batean profil bat irekitzen diete sexu-langilei, noiz eta zer hiritan jardungo duten zehazteko. Poliziak argazki bat egiten die, izen eta abizenak apuntatu (baita laneko izena ere), eta osasun-egoerari buruz galdetu. Egoera zibilar eta seme-alabei buruzko galderak ere egiten dituzte, eta jatorrizko herrialdeko kontaktu bat eskatzen dute, zer edo zer gertatuko balitz, harekin kontaktatzeko. *Te dicen aquí estamos para ayudarte y cuando no quieras ejercer más nos llamas y borramos tu fichero, eso te dicen, luego no lo sé.*

Kantonamenduaren arabera, nahi eta nahiezkoa izaten da sexu-langileei akonpainamendua egiteaz arduratzen diren elkarteetara joatea: Carolinak dio *berdinen arteko testuinguru* bat dela, elkarteetako kideek ere jardun izan dutelako sexu-lanean. Praktika arriskutsuei, legeari eta laneko eskubideei buruzko informazioa ematen dute: *te recomiendan que vayas a Suiza a vivir y que pagues impuestos y luego te va a quedar una jubilación que era una cosa irrisoria. No lo recuerdo bien pero no sé si era el 4%. Y te dicen, no, pero eso en tu país te va a dar para vivir muy bien* [barreak] .

Carolinak Belgikako ereduarekin konparatzen du Suitza, esanez Belgikan (non despenalizazio eredu bat dagoen) askoz errazagoak direla gauzak: ez du poliziaren aurrean izena eman beharrik, eta Suitzan bakarrik zenbait kantonamendutan alkilatu daitezke etxebizitza turistikoak; beste batzuetan soilik masaje-etxeetan da posible sexu-lana egitea, *aunque fuera de independiente y estuviera pagando una habitación.*

⁶¹ Aspasi kolektiboaren orrialdean argitaratuta dago Suitzan lan egiteko gida: lanerako baimen bat behar da, eta EB-ko biztanleentzat soilik erregistroa. <https://guide.aspasie.ch/es/chapter/derechos-y-obligaciones/autorizacion-de-trabajo/> Argitaratuta daukate, era berean, Suitzako Gobernuaren webgunea, zeinetan polizia departamentuko erregistro hori gauzatu daitekeen: https://www.sem.admin.ch/sem/fr/home/themen/fza_schweiz-eu-efta/meldeverfahren.html

Despenalizazio eredua eta erregulazioaren arteko aldeak ere agerian gelditzen dira Carolinaren lekukotasunean, *es que ni siquiera en los países en los que está reconocido como trabajo se nos llega a respetar, somos una forma de sacar dinero. Y sobretodo hay que tenernos controladas*. Suitzari buruz hitz egiten, komentatzen du nola ez diren errespetatzen bertako arauak (*en Lausana, por ejemplo, cuando hice la formación me dijeron no es legal que alquiles una habitación por más de 100 francos al día, no te pueden pedir más. Por una semana me pidieron 730, o sea ya era una ilegalidad.*) eta baldintza materialak benetan urriak zirela. Enkargatua ere erabat errespetugabea zela. *Es que ni siquiera había condiciones de trabajo... hasta el punto de que esa señora se ponía a hacer ruido en el pasillo mientras atendía a un cliente. La señora tenía un perrito y se le enganchó en la pernera del pantalón al cliente de una compañera. No respetan siquiera la fuente de ingresos por la que luego tú les vas a pagar*. Azken finean, erregulazioaren ereduak sexu-langileak ezabatu ezin den gaitz bat izanik, dirua lortzeko baliabide bihurtzen dira, kontrolatu egin behar dena, eta soilik gutxieneko baldintzak eskeiniz, betiere gizarteko ordena eta osasuna arriskuan jarri ez ditzaten.

5.1.5. Iparraldeko neoabolizionismoa

Suedian 1999. urtean sartu zen indarrean *Sexuaren erosketaren legea*: besteen prostituzioaren bidez dirua irabazten dutenak zigortzeaz gain bezeroak ere zigortzen ditu, eta sexu-langileei dagokienez, birgizarteratzea kokatzen da helburu nagusi gisa. Esan izan da eredu honi esker Suedian sexu-langileen kopurua jeistea lortu dela⁶² eta, ondorioz, beste herrialde batzuetan ere kopiatu da eredu hau, adibidez Norvegian eta Islandian. Datu hau ez da garbia: izan ere, ezin da esan sexu-langileak gutxitu egin direnik, baizik eta hobeto ezkutatutako lekuetara mugitu direla⁶³. Gainera, eskasak dira aldaketa legebilea gauzatu aurreko datuak.

Eredu honek sexu-langileei dakarzkien arazoak bi maila nagusitan bana ditzakegu: batetik estigma areagotu egiten da, jada estigmatizatuta dagoen jarduera bat debekatzearen ondorioz, gizarteak balidatuta eta indartuta ikusten du nonbait aurretik zuen ideia hori, eta finkatu egiten da. Don Kulick antropologoak, hitzaldi batean,

⁶² Carmona Cuenca, Encarna (2007), 57-58. orr.

⁶³ Paula Sánchez Pererak hemendik atera ditu zenbakiak: *Swedish National Police Board (2012), Trafficking in Human Beings for Sexual and Other Purposes: Situation Report*, 13. orr.

Suediako biztanleriaren %80-ak sexu-langileak ere penalki zigortu beharko liratekeela proposatzen zuela aipatzen du. Kontuan hartu beharra dago normalean gizartearen jarrera proxenetak zigortzearen aldekoa dela, baina ez sexu-langileak. Bestetik, nahiz eta printzipioz suediar ereduak ez duen prostitutak jazartzeko helburua, errealitatea oso bestelakoa da. Bezeroak zigortu nahi badira, poliziak frogak eskuratu behar ditu, eta horretarako sexu-langileak jarraitu eta ikertu egiten dituzte, askotan haien intimitaterako eskubidea urratuz, besteak beste⁶⁴.

Hauek dira beste ondorio batzuk: sexu-lanean jarduten duen edozein migrante tratatutik gisa hartzen da (eta honek zaildu egiten du benetako trata kasuak ikertu eta bideratzea), debekatuta dago sexu-lana egiteko espazioak alokatzea (hau da *tercería locativa* delakoa) eta seme-alaben kustodia kentzea posible da gurasoetako bat sexu-langilea izatean oinarrituz. Azken adibide bat aipatzearren, profilaktiko ugari izatea sexu-lanean jarduetaren seinale gisa ikusten denez, prostituzio-etxeetan gutxitu egiten da horien erabilera, horrek dakartzan ondorio arriskutsu guztiekin⁶⁵.

Carolinak ez du inoiz Suedian lan egin, baina bai Frantzian, eredu legegileari dagokionez ildo berean kokatu dezakeguna. Frantzian etxe bat alokatu zuen lanerako, eta azkenean ez zuen lanik egin jabeak esan ziolako hurbil bizi zela-eta etxetik pasatzeko asmoa zuela. Pertsona askok ezkutuko zenbakien bidez deitzen zuten, *cada tres días me tenía que estar cambiando de sitio*. Hotel bateko gela bat alokatzen saiatu zen, baina bezeroak oso urduri jartzen ziren. Publizitatea benetan garestia zen (200€ inguru astero). *Fue mucho más difícil trabajar en un abolicionismo, de hecho es que no hice ni un cliente*.

5.1.6. Zelanda Berriko despenalizazioa

Zelanda Berria da prostituzioa benetan despenalizatu duen herrialde bakarra, 2003. urtean gertatu zen *Prostitution Reform Act* (PRA) delakoaren bitartez hain zuzen. Eredu honetan sexu-lana zuzenbide laboralak arautzen du (berezitasun batzuekin), eta prostituzioaren alderdi guzti-guztiak despenalizatzen dira (adingabeen prostituzioa eta trata izan ezik). Kaleetan edozein tokitan egin dezakete lan, gutxienez teorikoki: Carolinak dio, Gillian

⁶⁴ Sánchez Perera, Paula (2022), 81. orr.

⁶⁵ Ibid., 84. orr.

Abel eta Lynzi Armstrongen liburuan oinarrituta⁶⁶, praktikan klase ertaineko familiak bizi diren auzoetan bizikidetzaz arazo ugari ematen direla. Polizia, printzipioz, beren babeserako ibiltzen da kaleak patruilatzen.

Ereduaren beste alderdi positibo batzuk honako hauek dira: sexu-lana utzi nahi duenarentzat Estatuak funts bat dauka, lana utzi eta beste bat eskuratu arte erabili daitekeena, posible da gehienez 4 langile lanerako elkartzea eta bakarrik kopuru horretatik aurrera eskatu behar da agiri bat. Agiri hori epaitegietan eskatzen da, eta poliziak ez du informazio horretarako sarbiderik. Ez da beharrezkoa erregistroan sexulangile izaera aitortzea, nahikoa da *beste zerbitzu pertsonalak* zehaztearekin. Sexulangileek, jada kobratu badute ere, edozein momentutan kendu dezakete beren adostasuna, eta hori ez errespetatzea delitu gisa dago tipifikatuta. Prostituzio-etxeetako esplotazioari eta beste edozein arazori aurre egiteko administrazio arloko, lan arloko, eta giza eskubideen arloko epaitegietara jo dezakete.

Alderdi negatiboei dagokienez esan beharra dago, beste behin, migratzaileen gain daudela: erresidentzia baimena beharrezkoa da aipatutako sistema honen bermeetan parte hartzeko. Honen oinarrian dagoena da Carolinak jada aipatu zuen *erakartze efektuak* sortzen duen beldurra. Hala ere, ez dirudi Zelanda Berriko ereduak tratareagotu duenik, baina bai migranteekiko diskriminazioa, deportaziorako arriskua dutelako⁶⁷.

Estigmari dagokionez, eredu honen bidez ikusi daiteke diskriminazio estrukturala ezabatzean estigma soziala ere gutxitu egiten dela: *una vez se elimina el estigma estructural, legitimado por las leyes e instituciones, el estigma social y simbólico irá progresivamente reduciéndose*⁶⁸.

5.2. Espainiako egoera juridikoa

Orain dela bi hilabete arte, eta momentuz hala jarraitzen du praktikan, Espainian prostituzioa alegala dela esan beharko genuke: prostituzioa bera ez dago zigortuta, bai

⁶⁶ Abel, Gillian eta Armstrong, Lynzi (2022). *Trabajo sexual con derechos: una alternativa de despenalización*. Virus.

⁶⁷ Armstrong, Lynzi (2017), 69-76. orr., apud Sánchez Perera, Paula (2022), 92. orr.

⁶⁸ Sánchez Perera, Paula (2022), 94. orr.

harekin zerikusia duten jarduera batzuk (orain aztertuko ditugunak) baina ez prostituzioa bera. Baina debekatuta ez dagoen hura baimenduta dagoela ulertu behar dugu, *permissum videtur id omne quod non prohibetur* printzipioaren arabera.

1995. urteko Kode Penaletik eta 2003ko erreforma egin zen arte erabat despenalizatuta zeuden prostituzioa eta bere inguruko jarduerak. Kode Penaleko 187 eta 188 artikuluek bakarrik behartutako prostituzioa eta adingabeen eta ezgaituen prostituzioa zigortzen zuten. Hala ere, sexu-langileei ez zitzaion lan eskubiderik aitortzen.

2003ko erreformaren bidez⁶⁹ esan dezakegu eredu abolizionista batean sartu ginela. Lege honek 188. artikuluari honako esaldi hau gehitu zion: *en la misma pena incurrirá el que se lucre explotando la prostitución de otra persona, aún con el consentimiento de la misma*. Carmona Cuencak dioen bezala, askok kritikatu izan dute artikulua honetan ez dela ondo zehazten zer den debekatuta dagoena. Jurisprudentziak hartu du ardura hori: Auzitegi Gorenaren 445/2008⁷⁰ epaiaren bidez horrelako jarduera bat delitutzat hartzeko bete behar ziren baldintzak zehaztu ziren.

Geroago etorri zen erregularismoari buruz hitz egiterakoan Carmona Cuencak eta Sánchez Pererak bi ordenantza aipatzen dituzte: aitzindari izan zen Bilboko 1999koa (Ordenanza Local sobre establecimientos públicos dedicados a la prostitución) eta Cataluniako 217/2002 Dekretua. Bietan prostituzio-etxeen arteko distantzia minimoak zehaztu eta higienari eta osasunari buruzko arauak ezartzen ziren. Honen bidez argi gelditzen da Administrazioak onartu egiten duela publikoari irekita dauden establezimenduetan prostituzioa kontsumitzea. Jurisprudentziak ere onartu izan du alternearen baitako kontratuzko harremana Langileen Estatutuko 1.1-eko baldintzak betetzen direnean (borondaztekoa, oraindua, beste norbaiten kontura eta dependentzia), azkena izanik frogatzeko zailena. Hala ere, behin lan-harremana dagoela onartuta, auzitegiek Segurtasun Sozialean erregistratzeko agindua eman ohi dute.

⁶⁹Ley Orgánica 11/2023, de 29 de septiembre, de medidas concretas en materia de seguridad ciudadana, violencia doméstica e integración social de los extranjeros.

⁷⁰ Auzitegi Gorenaren 445/2008 epaia, 2008ko ekainaren 3koa.

Oso adierazgarria iruditzen zait 2003. urtean ASNEM-ek (Asociación Nacional de Empresarios Mesalina) bere estatutuak aurkeztu zituenean Lan Ministeritzak eskaera egin izana 3. estatutua aldatzeko (konkretuki esaldi hau: *que ejerzan la prostitución por cuenta propia*), prostituzioa Espainian ez zegoelako baimenduta⁷¹. Entzutegi Nazionalera jo, eta bertan onartu egin zuten ASNEM-en errekurtsioa, estatutuen inskripzioa agintzearekin batera. Hemendik atera daitekeen ondorio bakarra da berez Espainian prostituzioa, baita norbere kabuz egindakoa ere, baimenduta dagoela. Proposatu izan da tazitoki baimenduta badago langile arruntei bezala lan arloko eskubideak aitortu beharko litzaiezkeela sexu-langileei. Bestalde, aipagarria da ere ASNEM patronala sortu zenetik Auzitegi Gorenak sexu-langileen sindikatua (OTRAS) onartu arte 17 urte igaro izana⁷².

Badirudi honekin lotuta egon daitezkeela *mozal lege*⁷³ delakoaren zenbait alderdi. Esplizituki santzio bidez zigortzen duen bakarra da kalean sexu-zerbitzuak eskatzea edo onartzea. Asmoa, berez, soilik bezeroak zigortzea zen, baina onartu zenetik sexu-langileek ondorio ugari jasan dituzte. Hasteko, 36.6 artikulua bitartez, agenteei desobeditzea jasotzen duena, sexu-langileak zigortu ditzake poliziak (bezeroentzat aurreikusten den munta berarekin, 30.000€ artekoa) bigarren aldiz toki berean atzeman ezkerro. Gainera, 37.5 artikulua *actos de exhibición obscena* direlakoak aipatzen ditu, eta horren bidez ere sexu-langileak zigortzen dira.

Encarna Bodelón González eta Paula Arce Becerrak azaltzen duten fenomeno baten aurrean gaude hemen: zuzenbide administratiboaren zuhurtzia baliatzen da oinarritzkoak diren eta, gure kasuan, sexu-langileen bizitzan eragin handia duten erabakiak hartzeko, iritzi publikoaren iragazitik igaro beharra ekidinez: *el fortalecimiento del derecho administrativo sancionador como instrumento de afectación de dichos derechos es uno de los elementos emergentes en las nuevas técnicas de control social*⁷⁴.

Espainiar ereduaren analisitik ondorioztatzen dena da beharbada maila teoriko batean debekuaren sistemaren eta abolizionismoaren arteko ezberdintasunak oso argiak direla, baina maila praktikora eramaterakoan ondorio praktikoak nahiko parekoak direla: isunen

⁷¹ Sánchez Perera, Paula (2022), 103-104. orr.

⁷² Ibid., 104-105. orr.

⁷³ Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de protección de la seguridad ciudadana.

⁷⁴ Bodelón González, Encarna eta Arce Becerra, Paula (2018), 72. orr.

mehatxua dela-eta sexu-langileak ezkutatu egin behar dira arriskutsuagoak diren espazioetara mugituz, beren negoziatzeko (eta bezeroak ez onartzeko) ahalmena gutxitu egiten da, eta jasandako biolentzia salatzekeko oztopoak jartzen zaizkie, estigmaren areagotzea ez aipatzearren. Horregatik, Mestre i Mestrerekin batera, esango nuke zentroan jarri behar dugun irizpidea erabakitzeke erabaki legegile bat feminista den ala ez ez dela ideologiarena, ez dela X ereduren azpian dagoen arrazonamenduarena, baizik eta errealitatean ekarriko dituen ondorioena: zer eragin izango du kolektibo ahulenengan? edo, berak dioen bezala, espazio gehiago jarriko ditu emakumeen eskuetan ala gizonezkoen eskuetan mantenduko ditu⁷⁵?

Espainiako egoera legala aztertuta, Carolinaren lekukotasunarekin jarri nahi dut harremanetan. Hau da leku bakarra non Carolinak hirugarrengoz egin duen lan. Enkargatuaren figura aipatu da bigarren atalean, baina atal honetan interesatzen zaiguna da enkargatuaren gehiegikeria posibleen aurrean berme juridikoak izan ezkeroko sexu-langileek tresnak dituztela salatzeke.

Autonomoki ere egin du lan Espainian. Logela bat alokatzen zuen (astero 150-300€-ko kostua izaten zuena), alokairu-kontraturik gabe eta jakin gabe norekin partekatuko zuen etxea. Hori arazotsua izan daiteke beste pertsona horrek zenbait praktika (arazoak ekarri ahal dituztenak eta sexu-langile jakin batek agian hurbil eduki nahi ez dituenak) eskaini ditzakeelako: adibidez *fiesta blanca*⁷⁶ delakoa. Carolinak, honen harira, esperientzia bat izan zuen Donostian bizi zela: *aquí en Donosti, justo el día que me fui, un chico que trabajaba ahí en el piso invitó a sus amigos y a una la encerró por dentro con su amigo, a otra le quitaron la llave de la habitación y no dejaban de acosarla... y al final él se cortó las venas*. Edozein momentutan kaleratu ahal zaituzte, eta materialen aldetik oso zuhurrak izan ohi ziren: eskuoihal zikinak edo urratuak, izara bakarra aste osorako, gela zikinak... Gasteizko pisu batean ez zeukaten berogailurik, argiak sensore baten bidez funtzionatzen zuen eta behin eta berriz itzaltzen zen, errezelak erori egiten ziren... Jabeak, eskatu zutenean, ez zien berogailurik jarri nahi izan eta *manta bat jartzeko* esan zien. Bestalde, ez zuen inolako ardurarik jartzen auzokoekiko harremana kudeatze aldera: esate baterako insonorizazio sistema baten bitartez, edo interfonoa kenduz. Arduragabekeria

⁷⁵ Mestre i Mestre, Ruth (2007), 14. orr.

⁷⁶ Kokaina hartzen duen bezero bat artatzea, ohiko zerbitzuak eskaintzeaz gain, berarekin batera kontsumitzeke.

honek arazo ugari sortzen ditu: auzokoak haserretu egiten dira eta ondorioz bertan bizi diren sexu-langileei zaildu egiten diete beraien lana eta bizitza, esate baterako atearen aurrean kokatuz bezeroei sarrera galarazteko.

